

ELKARRIZKETA: MAISABEL ISASMENDI, ATZEGI



Arrasate

P R E S S

2000.eko
maiatzaren 5a
494. zenb.

Arrasate Irratia

107.7an zuen zain

IKUSPEGIA: KARMELE PEREZ • EUREN IKUSPUNTUTIK: UGUTZ GARITAONAINDIA
KIROLA: S. ISIDRO TXIRRINDULARI SARIA • KULTURA ELKARRIZKETA: JOXEMARI MUXIK

Arrasate-Aretxabaleta Institutua

Etorkizuna zure esku



Ematen ditugun motak

- Natur eta Osasun-Zientziak.
- Giza eta Gizarte Zientziak.
- Teknologikoa.

Bide irekiak

- Ikasle bakoitzari egokitutako Bideak ditugu.

Hizkuntzak

- Ingelesa.
- Frantsesa.

Modalitate eta Aukerakoetan eskaintza zabala

- Laborategi teknikak.
- Elektroteknia.
- Mekanika.
- Psikologia.
- Antropologia.
- Ekonomia eta enpresa antolaketa.
- Iharduera fisiko, aisialdi eta osasuna.
- Ordenagailu bidezko marrazketa eta diseinua.



Erdi Mailako Zikloak

- Ibilgailuen elektromekanika.
- Erizaintzako zaintza osagarriak.
- Soldadura eta Galdaragintza..
- Mekanizazioa.
- Kontsumorako ekipa elektronikoak.



Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Galdaketa eta Pulbimetalurgia bidezko produkzioa.

Aurre-Inskripzioa eta Matrikula

AURRE-INSKRIPZIOA
Batxilergoa Maiatzaren 2tik 12ra
Heziketa Zikloak Ekainaren 1etik 12ra

MATRIKULA
Batxilergoa Uztailaren 3tik 10era
Heziketa Zikloak Uztailaren 3tik 7ra

Berri gehiagorako:

ARRASATE / Sta.Teresa, 25 • Tel.: 943 79 44 47 / 79 83 00 /

ARETXABALETA / Etxebarri auzoa, z/g • Tel.: 943 79 79 00 / 79 79 43 /

Oporrak aberasgarri

Askok egin dugu sasoi honetan astebete etxetik kanpo. Deskonektatzeko, egunerokoari arnas berria emateko, neguak gogortutako gorputzari astinalditxo bat emateko... Horra hor Aste Santuko oporren laburpena askorentzat. Hamaika aitzakia eman ditzakegu oporrei eta bidaiei zentzua emateko: atsedean hartzea, beste pertsona batzuk ezagutzea, beste ohitura batzuen berri izatea, beste herrialde batzuen bizimoduaz jabetzea... guztion gogoetan dauden arrazoiak izango dira, oro har.

Egia da, bai, askok deskonektatzeari garrantzi handia ematen diogula. Batzuk diote horrela pilak kargatzen dituztela. Beste batzuk oporren sindromearekin itzultzen dira, ez dute itzuli nahi eta iritsi ahalahurrengo oporretarako zenbat falta den konta-



Karmele Perez

Astebete nahikoa da egunerokoa eteteko, baina ez beste bizimodu batzuk ulertzeko

tzen dute. Askok oporrak astebete luzatzea beharko genuke hauek eragindako neketik sendatzeko. Kontua zera da, eguneroko dinamikarekin haustea, eguneroko bidean atsedean bat egin eta aberastuko gaituen zerbait gauzatzea. Makinatxo bat aldiz galdetu didate ea zer aurkitzen dugun hortik zehar etxean ez daukagunik. Ea bizi duguna baino ezer

hoberik edo dauzkagun arazoetarako konponbiderik aurkitzen ote dugun. Jakina, horrelakorik ezer ez.

Bati baino gehiagori entzun diot aste honetan, bidaiatzeak pertsona hobe bihurtzen zaituela, mundua hobeto

ulertzen laguntzen dizula, toleranteago egiten zaituela edo egin daitekeen gauzarik onena dela. Tira! Bidaiatu, bidaiatzen du ahal duenak. Badago makina bat pertsona zoragarri muga inoiz igaro gabe mundua ederki asko

ezagutzen eta aztertzen dakiena. Ez dakit *ulertu* hitza hemen zilegi ote den; badago inor mundu hau ulertzen duenik? Munduaren ibilbidea zentzuzkotzat joko duenik behintzat ez dut uste.

Badago jendea *irteteko* beharrik sentitzen ez duena. Bejondeiela! Eta bagaude beste batzuk beste egoera eta biziera batzuk zuzenean ezagutzea eta dastatzea baloratzen dugunak; beste herri batzuetako kultura eta izaeretatik hainbat balore ikasi ditugunak. Ikasi, diot, bidaiatzeak zentzu guztiak adi eta bihotza zabalik eramatea esan nahi duelako: zabalik eta adi doanak hamaika poz eta hamaika dolore ekarriko ditu, bere izaera eta bizitza aberastuko dutenak.

Astebete nahikoa izan da egunerokoa an etena egiteko, baina ez gehiegi beste lurralde batzuetako bizimodua behar den bezala ulertzeko, ez gehiegi pertsona haiekin nahikoa hitz egiteko. Aski izan da, anitz kezka eta jakin-min pizteko, herrien eta pertsonen arteko elkartasun beharra ikusteko eta aberastasuna denon izaera partikularren batuketak osatzen duela ikasteko. ■

“Ez dugu Euskal Herririk izango euskararik gabe, eta ezta ere euskara ikastolarik gabe”.

Ugutx Garitaonaindia

700

bat pertsonak hartu zuen parte Gurutze bidean, ostiral santuan. 900 kantu paper banatu zituzten.

Iaztik, ordea, askok kantu-paperak gordeta zituzten. 14 geldiuinetan zehar, gizonezkoak izan ziren emakumezkoak baino gehiago. Ordubete egin zuten urtero bezala.

AURKIBIDEA

- | | |
|-----------------------------|-----------------------------|
| • Ikuspegia..... 3 | • Aurrez aurre..... 12/13 |
| Oporrak aberasgarri | Maisabel isasmendi |
| • Irakurlea idazle..... 4 | • Zaldibarko areto |
| • Inkesta..... 5 | futbola..... 21 |
| • Euren ikuspuntutik..... 6 | • Kirolak jokoan.... 22/23 |
| Hegoaxe | • Kulturaren |
| • Begi kolpez..... 7 | txokoa..... 24/25 |
| • Asteko hitzorduak.... 8/9 | • Ikusi eta entzun... 26/27 |
| • Orain eta hemen... 10/11 | • Azoka plaza..... 28/29 |
| • Txutxumutxuak.... 12/14 | • Foto zaharra..... 30 |
| • Asteko gaia... 15/16/17 | |
| Arrasate Irratia | |



ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate
Komunikabideak) Oñalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Marijo Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarría. **Publizitateak:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arrolabe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzaileak:** Sergio Azkarate. **Administratzailea:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90). **Disenatzailea:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemaileak:** Izaskun Salazar. **Kolaboratzaileak:** Mikel Inzar, Karmele Perez, Nekane San Miguel, Iker Ezpeleta eta Udako Gazteien Saria. **Banaketaren arduraduna:** Nerea Oñozola-AED. (Tel.: 943 71 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.



Arrasateko Udalerria
laguntzaile



Gipuzkoako Foru
Aldundia laguntzaile



Eusko Jaurlaritzako
Kultura
Sailaren laguntzaile

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Delak 112
Gurutze Goria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Arrasate
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 79 58 77

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Ostirala, 5

- Azkoaga, Iturriotz

Larunbata, 6

- Korkuera, Musakola

Igandea, 7

- Irizar, Erguin

Astelehena, 8

- Amezua, Santa Marina

Asteartea, 9

- Zabala, Zarugalde

Asteazkena, 10

- Ruiz, Maalako Errabala

Osteguna, 11

- Morales, San Andres

LIBURUAREN EGUNA ARRASATEN

Arrasate Presseko 493. zenbakian agertu zen artikulua komentatzera natorkizue. Azaltzen diren hainbat esaldi ez dira liburutegiko langileek esandakoak; adibidez, Asun Agirianok ez zuen inondik inora esan "Liburuaren eguna" liburu denden asmakizuna zenik. Nik esan nuena zera izan zen, liburuaren eguna argitaletxeak bultzatutako eguna zela, izan ere, gaztelaniaz horrela da: "Dia del Libro y de los Derechos de Autor"; bide batez, esan beharra dago bigarren gai horri buruz inoiz ez dela ezer aipatzen.

Aldi berean, Mertxe Perez de Cirizak esandakoak eta aldizkarian irakurri daitezkeenak ere ez dira gauza bera, hau da, arrasatearrongan "Liburuaren egunak" ez delanongo eraginik. Nola esango du ba hori, gure lana eragin hori lortzea baita? Liburutegiaren zerbitzuan behintzat badu eraginik, eta horrexegatik, orain dela bost urte edo egun berezi horretan hainbat ekintza antolatzen ditugu.

Beharbada, eta agian horregatik txarto ulertzearena, kazetariari proposatu genion liburutegira etorri baino, hobe zela herrian zeuden liburu dendetara joatea, ea beraiek nola ospatzen zuten jakiteko.

Bestalde, artikulua forma edo egiturari dagokionez, iruditzen zait hainbat iritzi, hainbat pertsona eta hainbes-

teko informazioa zutabe bakarrean jartzeak ez diola mende handia egiten kulturaren txokoari, dena nahastuta agertzen baita.

Hemen idatzitakoa kon-tuan izango duzuelakoan, bibliotekako langileek agurtzen zaituztete.

Asun Agiriano

Gutunaren araudia

Arrasate Pressen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira, nahita ez:

- Egilearen izenaz argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde izena onartuko da.
- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hor-tik gorakoa balitz, laburtzeko eskubidea izango du erre-dakzioak. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatu-ko gara.
- Anonimoak eta gaitzen edo inisialez datozenak ez dira argitaratuko.
- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako orde-nean kaleratuko dira gutun guztiak.
- Gutun iraingarririk ez da argitaratuko.
- Gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harre-manetan jartzeko modua adierazi beharko du, egilea bera dela egiaztatzeko. Telefono zenbakia nahikoa da horretarako.


Sili Sili
Martxa eta estilo
handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Nola gogoratzen duzu zure lehen jaunartzea?

Maiatza izaten da jaunartzeen hilabetea.



Benigno Suarez
(47 urte)
Langilea

Ez dut gogoratzen. Erloju bat oparitu zidatela gogoratzen dut, baina gehiagorik ez.



Jon Iñaki Yarza
(65 urte)
Erretiratua

Anaiaren arrokekin joan nintzela gogoratzen dut orain dela 58 bat urte. Astebete lehenago aita hil zitzaidan.



Ana Maria Larrea
(65 urte)
Erretiratua

Ez dut ezer gogoratzen, oroimenak ere kale egiten du eta...



Agustin Portalo
(27 urte)
Langilea

Urrun samar gogoratzen dut. Tximeleta janzteak trauma eragin zidala daukat gogoran.



Marta Molina
(52 urte)
Langilea

Uniforme batekin egin nuen eta etxekook bazkaria egin genuen. Garai hartan ez zen bestelako jairik egiten.




Maria Luisa Garciaetxabe
(54 urte)
Langilea

Baserrikoa izanda, kalean egin genuela gogoratzen dut, soineko ponposo batekin.



Miriam Hernandez
(11 urte)
Ikaslea

Oso pozik nengoela eta hitz egiten zuen panpin bat oparitu zidatela.



Benigno Rodriguez
(59 urte)
Langilea

Jaunartze oso normala izan zen. Praka motzekin joan nintzen eta marinela jaka batekin. 15-20 lagunek egin genuen batera.

Focus TDdi

Injekzio zuzena
2.019.000 pta.

Prever plana
eta deskontuak barne

MUGARRI

943 79 07 44

Sagardotegia Txotx egin!



ITURRIETA

Arraga auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO

AL

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

USTEAK USTE

Zuekin Arrasate Irratia

FMko 107.7n goizero Alazne Ostolaza, Aitziber Aranburuza- la eta Maier Uranga. Tekniko lanetan, berriz, Gaizka Vitoria.

Guztiak arituko dira udal-irratian, astelehe- netik aurrera.

Eta hirurak ARKoren egoitzan izango dira. Izan ere, Udalak eta Arrasate Komunikabidea- kek udal-irratia elkarre- kin kudeatzeko hitzarme- na sinatu zuten.

Bost urte bete zituen irratia iaz. Esperientzia baduela beraz, ezin ukatu. Baina hemendik aurrera, elkarlanean arituko dira ATB eta Arrasate Pressekin. Bi komunika- bide hauek bide luzea egin dute. Herri-komuni- kabideen historian zeresan handia izan dute, aitzindariak izan zirelako. Orain erronka berria dauka ARKOK. Irratian lan egitea berria da guretzat, baina ziur naiz esperientziak mereziko duela.

Aurreko egunetan irratiko langileak dena prestatzen aritu dira. Programazio osoa zehaztu barik dagoen arren, astelehenean uhinetan barrena izango dugu berriz ere Arrasate Irratia. Eta noski, kolaboratzaileak ere, adi! Zuek ere beharrez- koak zarete Arrasate Irratian!

Marijo Deogracias



Goazen Herri Urratsera

* Ugutz Garitaonaindia

Senperekko laku barrenetik deiadar ozen bat heldu berri zaigu gure laguntza eskatuz. Izan ere, geroz eta gertuago dago maiatzaren 14a, eta ondorioz, ipar Euskal Herriko ikastolen festa.

Festa hau, urte osoan zehar egiten diren ekintzen barruan kokatu behar da. Hauen helburua, euskararekiko sentsi- bilitatea sustatzeaz gain, laguntza ekonomikoa esku- ratzea da, guztiok ezagutzen baitugu lurralde hauetan eus- karak jasaten duen bazterke- ria. Aspaldiko urteotan eus- karak ipar Euskal Herrian beherantz egin badu ere, jada- nik buelta ematen hasia da. Geroz eta haur gehiago matri- kulatzen dira euskarazko ere- duetan, baina hauek oso ego- era kaskarretan dauden ikastoletan jasotzen dute irakaskuntza. Adminis- traziotik behin eta berriro ukatzen zaio lekua euskarari. Eus- karak oraindik iparral- dean ez du sostengatu- ko duen lurralde antola- mendurik. Nahiz eta ber- tako hautetsiek horrela eska-

tu, behin eta berriro ukatzen zaio departamendu propioa. Begi bistakoa da euskarari eusteko egin behar duten lan eskerga, eta hau guztion al- txorra izanik, denon parte hartzea eskatzen dugu. Ez dugu Euskal Herriko izango euskararik gabe, eta ezta ere euskara ikastolarik gabe; beraz, goazen guztiok egun honetan laguntza ematera eta jaietan parte hartzera.

Dudarik gabe, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa- ko gure herrikideak ondo bai- no hobeto ibiliko dira egun hau prestatzen, guztion arte- an jai egun alaia pasatzeaz gain, hain beharrezkoa duten

sosak eskuratzeko.

Honen harira, Herri Urra- tseko antolatzaileek eskatu- ta, AEDko Hegohaxe talde- kook egun honetarako hain- bat ekintza prestatzea eta beraiek antolatutako beste hainbestetan laguntza ematea erabaki dugu.

Horretarako, gure asmoa maiatzaren 13an Arrasate- tik irten eta Kanboko Xalbador ikastegira abiatzea da. Ber- tan hurrengo egunerako pres- tatuta ditugun ekintza guztien azalpenak eman eta jai giro- an mahai baten bueltan afal- duko dugu. Horrela, hurren- go egunerako zirkuitura iri- tsi eta gauza guztiak presta- tzeko denbora izango dugu.

“Gaur danik geroa!” erai- ki behar delako, idatzi honen bidez Arrasate zein inguru- ko elkarte, erakunde edota gizabanako guztiei dei egiten dizuegu, Herri Urratsen par- te hartzera eta laguntza ema- tera hurbiltzeko. Guztion eginbeharra baita Euskal Herri osoan euskarak dago- kion tokia berreskuratzen laguntzea, eta, bide batez, mugak hautsiz euskaldunon arteko loturak berrindar- tzea.

Izena emateko edo edozein argibide eska- tzeko, deitu 943 71 21 17 telefonora, edo pasa zaitez AEDko bulegotik.

*Hegoaxe

“
Euskarak oraindik
iparraldean ez du
sostengatuko duen lurralde
antolamendurik
”



Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

Eskaertza berezia solariumean

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE



hildakoak

- Claudio Aguado Portalo, apirilaren 17an, 88 urte.
- Juan Zabalo Lekirakaonainidia, apirilaren 17an, 72 urte.
- Tomas Agirregabiria Zelaia, apirilaren 23an, 75 urte.
- Eladio Calvo Gonzalez, apirilaren 24an, 65 urte.
- Jose Medina Iglesias, apirilaren 24, 89 urte.
- Pedro Antonio Arbulu Arrieta, apirilaren 24, 71 urte.
- Antonio Baskaran Baskaran apirilaren 30ean, 81 urte.
- Florentina Alvarez Rodriguez, maiatzaren 1ean, 82 urte.
- Victoria Sacristan Sanz, maiatzaren 2an, 83urte.

ezkontzak

- Alberto Pereda Ibar eta Rosa Maria Serrano San Julian, apirilaren 8an.
- Asier Laskurain Bidaburu eta Maria Esther Gonzalez Cabrera, maiatzaren 15ean.

jaiotzak

- Alaitz Alzola Uriarte, apirilaren 13an.
- Imanol Elkorobarrutia Insausti, apirilaren 12an.
- Imanol Barandiaran Maidagan, apirilaren 17an.
- Ainhoa Etxebarria Lasa, apirilaren 16an.
- Dorleta Martin Prieto, apirilaren 25ean.

mezak**San Joan parrokia****Larunbata**

19:00 (elebiduna)

Igandea

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza**Larunbata**

19:00 (elebiduna)

Igandea

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

19:00 (erdaraz)

Uribarri parrokia**Larunbata**

19:00 (elebiduna)

Igandea

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

San Andres eliza**Larunbata**

19:00 (elebiduna)

Igandea

10:00 (elebiduna)

11:00 (euskaraz)

12:00 (erdaraz)

13:00 (erdaraz)

Santa Teresa eliza**Larunbata**

19:00 (elebiduna)

Igandea

10:30 (erdaraz)

11:30 San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

Santamañako eliza**Jaiegun bezpera eta larunbata**

19:00 (erdaraz)

Igandea

12:00 (erdaraz)

Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Metereologia Zentrua

**OSTIRALA 5**

Lainoak izango dira nagusi eta agian euri tantaren bat edo beste bota dezake. Haizeak ekialdetik joko du.

**LARUNBATA 6**

Lainotua izango dugu eguna eta goiz partean behe-lainoa ere egongo da. Tenperatura ez da aldatuko.

**IGANDEA 7**

Aurreko egunen antzera, lainoak geurekin segituko dute eta eguraldi eskasa izango dugu.

eskertzak eta urteurrenak

**Eskelak,
esker onak
eta urteurrenak
jartzeko tartea**

Tel.: 943 71 23 91

ESKER ONA**Edur Arregi Liziaga**

Uztaritzen (Lapurdi) hil zen
2000.eko apirilaren 14an,
67 urte zituela

*Familiak bihotzez
eskertzen ditu jasotako doluminak
eta Uztaritzen eta Arrasaten egin diren hileta
elizkizunetara etorri izana,
eta bere bizitzan zehar lagun izan diren guztiak.*

**BITTORI
ERRETEGIA****Eguneko menua • Kartako menua****Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak**

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

**Danona
KARROZERIAK****Konponketak, txapa eta pintura**

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

5

ostirala

■ **ZINEA**

Las Normas de la Casa de la Sidra, 22:00, Alai zineman.

■ **HITZALDIA
ESKORIATZAN**

Eskoriatzako Gazte Asanbladaren Aste Gaztearen barruan "Okupazioa Euskal Herrian" hitzaldia izango da, Duinaren eta Dorostiako Etxe Okupazio Asanbladaren eskutik. Kultur Etxean, 19:00.

■ **XABIER AMURIZA**

Topagunearen Kultur Errota egitasmoak Xabier Amuriza ekarriko du Arrasatera. "Lazkao Txiki bat-bateko sorgina" antologia eskainiko du Amaia antzokian. Sarrerak 300 pezetan. 22:00.

■ **SONNY VINCENT
GO-JAMEN**

Bergarako Go-Jamen. Sarrerak 800 pezetan. 22:00.

6

larunbata

■ **ZINEMA**

Umeentzako emanaldian, *Biziaren Arbola*, 17:00. *Las Normas de la Casa de la Sidra*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ **LANTEGIAK ETA
ASKARI HANDIA**

Arazakeriaren aurkako asteen, Gazte-Txokoek ume lantegiak antolatu dituzte, auzo-ludoteketan, 11:00. 18:00etan, askari handia Uri barrin.

■ **AKELARREA
AITZORROTZEN**

Aste Gaztea amaitzeko, Eskoriatzako Gazte Asanbladak Akelarrea antolatu du Aitzorrotzen. Herriko plazatik irtengo dira, 18:00etan.

■ **ALKOHOLIKO ANONI-
MOEN HITZALDIA**

Arrasateko Alkoholiko Anonimoek 25. urteurrena dela eta, hitzaldia eskainiko

7

igandea

■ **ZINEMA**

Umeentzako emanaldian, *Biziaren Arbola*, 17:00. *Las Normas de la Casa de la Sidra*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

9

asteartea

■ **ZINEMA**

Las Normas de la Casa de la Sidra, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

■ **BILERA INSTITUTUAN**

Zabalik dago Batxilergo-rako aurreinskripzio epea. Hori dela eta, Arrasate-Aretxabaleta institutuak guraso eta ikasleentzako bilera antolatu du. Institutuko areto nagusian, 18:30.

■ **SAN JOANETAKO
KOADRILEN BILERA**

San Joan jaiak prestatzeko koadrilen arteko bilera egingo da Monterronen. 19:00.

8
astelehena

■ **ZINEMA**

Las Normas de la Casa de la Sidra, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

Haurrentzako masaje ikastaroa

Urtebete bitarteko haurrak dituzten gurasoei zuzendua



- Lasaitzeko •
- Hobeto lo egiteko •
- Koliko eta hortzaldietako minak baretzeko •
- Negar gutxiago egiteko •
- Inmunitate-sistema sendotzeko •

Antolatzailea: MUGI, Psikomotrizitate Prebentzio eta Laguntza Zentroa
Tokia: Araba etorbidea 3, 2-3. atea. (Eskatu eraikina)
Eguna: Maiatzaren 13an (bilera informatiboa). 6 larunbata.
Ordua: 10:30
Telefona: 943 77 08 05

Udalekuetara etorri nahi?



Urtero moduan, San Franziskoko elizak udalekuak antolatu ditu Oliten, Nafarroan. Hilaren 12a, barikua, uda-

lekuotarako izena emateko azken eguna da. Parte hartu nahi izanez gero, jo San Franzisko elizako klaustorra.

10 asteazkena

■ BIDEOA MONTERRONEN

Gazte-Txokoek antolatu-tako arrazakeriaren aurkako ekintzak aurrera doaz. Gaur, *Las Cartas de Alou* filma eskainiko da Monterronen, 19:00

■ EMIGRAZIOAZ ERAKUSKETA

Arrazakeriaren eta xenofobiaren inguruko hilabetearen barruan, emigrazioari buruzko erakusketa izango da, hilaren 5 eta 6an Uribarri, eta 9an eta 10ean San Andresen.

■ ARGAZKI ERAKUSKETA

Mundua Zure Ikuspegitik izeneko argazki erakusketa zabalduko da Monterronen, maiatzaren 8an.

■ ESKULANAK ETA DANTZA

Ekin emakume taldeak dantzen ikastaroa antolatu du, maiatzaren 8tik aurrera. Argibideak: 943 77 12 28an.

■ **ARDO IKASTAROA**
Hilaren 9an hasiko da AEDk antolatu duen ardo ikastaroa, eta zabalik segitzen du izen emate epeak. Prezioa 8.500 pezetakoa da, 7.000 bazkideentzat. Deitu 943 77 12 28 telefonora.

■ **AUTODEFENTSA IKASTARO BI**
Arrasateko Wing Tsun taldearen emakumeentzako autodefentsa ikastaroa maiatzaren 6an hasiko da. Izen ematea: 610 90 26 30 - 943 77 00 67. Udaleko Emakume Sailak ere autodefentsa eta autoestima ikastaroa antolatu du. Maiatzaren 12-13an. Izen ematea doan da, Gazte Bulegoan.

■ **HAURRENTZAKO MASAJEAK**
Urtebete arteko umeen gurasoei zuzendutako masaje ikastaroa antolatu du Mugi zentroak. Aurkezpen bilera maiatzaren 13an izango da. Araba etorbidea 3. 10:30.

■ **KINTO BILERAK**
Maiatzaren 20an bi kinto bilera izango dira. 1931n jaiotakoak: 12:30ean meza eta 14:15ean Batzokian bazkaria izango dute. Izen ematea 15a baino lehen Batzokian. Egun berean bilduko dira 1948an jaiotakoak: hauek ere meza eta 14:30etan bazkaria izango dute, Batzokian.

Izen ematea maiatzaren 12a baino lehen, Aldape tabernan.

■ **TERMALISMO PROGRAMA**
Inersok termalismo programak eskaintzen ditu. Irailetik abendurako txandan parte hartzeko, maiatzaren 16a baino lehen egin beharko da izen ematea, Udaleko Gizarte Zerbitzuan.

■ **BRIGADISTAK BEHAR DIRA**
Komite Internazionalistak Taldeak antolatzen dituen Brigadak abian daude. Hainbat herriren egoera zuzenean ezagutu nahi izanez gero eta beste batzuei behar duten laguntza emateko uztail eta abuztuan Mexiko, Kolonbia, Nikaragua eta Kubara joateko aukera duzue. Eskatzen duten elkartasun politikoa eskaintzea da helburua, lekuan lekuko beharretara egokituta. Izena emateko epea, apirilaren 5etik maiatzaren 15era arte izango da. Argibideak, 943 714782.

11 osteguna

■ **ZINE KLUBA**
Arrazakeria eta Bazterre Soziala film zikloaren barruan, *My Family* luzemetraia eskainiko da. Amaia Antzokian, 21:30.

Autodefentsa ikastaroa

Autoestima eta autodefentsa psikiko eta fisikorako teknikak geureganatzeko

• Egunak:

Maiatzaren 12an, arratsaldez.

Maiatzaren 13an, goizez eta arratsaldez.

• **Emalea:** Maite Monroy.

• **Matrikula:** doan.

• **Izen ematea:**

Gazte Bulegoan

Tel.: 943 77 00 65



Emakume Saila ■

Debagoieneko komunikazio enpresa batek ZUZENDARI KOMERTZIALA behar du

Enpresaren diru sarreren ardura osoa izango du, produktuen sorrera beretik fakturazioraino, horretarako eratuko den lantaldea zuzenduz, eta beste arduradunekin elkarlanean.

Eskatzen da:

- Sormena eta antolaketa gaitasuna.
- Antzeko lanetan esperientzia.
- Gidatzeko baimena eta autoa.
- Office-ko programen ezagutza.


Eskaintzen da:

- Aldi baterako kontratua, mugagabe bihurtzeko aukerarekin.
- Lanean berehala hastea.
- Soldata negoziagarria.

Interesatuak kurikulum eta argazkia bidali, maiatzaren 27a baino lehen, ondoko helbidera:

95 Posta Kutxatila • 20500 ARRASATE

Erasoak eta mehatxuak Aste Santuan



Sua hartzeko likidoa bota zuten PPko zinegotziaren etxebizitzako leiho batera.

Pasa den apirilaren 26an ezezagun batzuek eraso egin zioten goizaldean Jose Ramos Prieto, PPko zinegotziaren etxeari. Sua hartzeko likidoa bota zuten zinegotziaren etxebizitzako leiho batera, eta ondoren, su eman. Ixita zegoen pertsiana hondatuta geratu zen. Erasoak eragindako zaratak lo zeuden zinegotzia eta familia esnarazi zituen, eta eurek emendatu zuten sua.

Honez gain, Ramosen etxebizitzaren horman, PP hiltzaile eta PP kartzelero esaldiak agertu ziren gau berean, eta baita gose greban dagoen Goio Etxabe mondragoetar presoaren aldeko idatzia ere.

Euskaldunon Egunkariak argitaratutakoaren arabera, egunkari horretara deitu zuen ezezagun batek beregain har-

tu zuen erasoak; PPren eta PSOEren "indarkeria faxista" salatzeari zuela helburu azaldu zuen.

Erasoaren bezperan, bai PPko zinegotziak eta baita herriko lau zinegotzi sozialistek ere, mehatxu gutun bana jaso zuten. Eskutitzak ez zera-man sinadurarik eta mehatxu egiten ziren denei, udal-kargua utzi ondoren ez bazuten alde egiten Euskal Herritik.

ESKUBIDERIK EZ

Erasoari erantzuna emanez, Prietoren ustez, jende horrek ez du eskubiderik pentsamolde desberdina eduki arren, mota honetako erasoak egiteko.

Era berean, gertatutakoaren aurrean prentsaurrea eman zuen Mondragoeko alderdi sozialistak. PPko zinegotziari elkartasuna erakustez gain,

gogor kritikatu zuten gertatutakoa. Gainera, beste norbaiti antzeko zerbait gertatuz gero, erantzulea alkatea izango zela azpimarratu zuen Paco Garciak, alderdi sozialistako bozeramaileak. Bukatzeko, zinegotzi guztiek argi azaldu zuten ez dutela euren kargua utziko eta ez direla Euskal Herritik joango, hilik ez bada.

Bestalde, EAJko, EAKo eta EBko ordezkariak aho batez gaitzetsi dute erasoak. Hauen iritziz, mota honetako gertakariak ez diote bate-re laguntzen bake bideari.

Herriko alkateak, Euskal Herriak bizi duen egoera istilutsuaren barruan kokatu ditu zinegotzi sozialistek eta popularrek jasotako mehatxuak.

Karrera berria Humanitate Fakultatean

Asteazkenean egin zuen ikas-turte berriko aurkezpena Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eta besteak beste karrera berri bat izango dela jakinarazi zuten: Hizkuntzen Psikopedagogia.

Bigarren zikloko ikasleei zuzendutako ikasketak dira, hau da, Psikologia eta Pedagogiako lehen zikloa gainditu dutenek egin ahal izango dute.

Hizkuntzen aniztasnak Euskal Herriko eskolan eta gizartearen eragiten dituen egoerei erantzun egokia ematen jakingo duten profesionalak prestatu nahi dira karrera honenkin.

Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak bestalde, Irakasletza eta Humanitate-Enpresa ikasketak ere eskainiko ditu. Irakasletzari dagokionez, hiru berezitasun izango ditu: Haur Hezkuntza, Atzerriko Hizkuntza (ingeleza, kasu honetan) eta Hezkuntza Berezia.

Humanitate-Enpresa lizentziaturak, bi ziklo jartzen ditu aukeran. 1. zikloa unibertsitatara sartzeko gaitasun frogak gaindituta duten ikasleentzat eta bigarrena, berriaz, beste edozein ikasketetatik datozen ikasleentzat. Kreditu osagarri batzuk gainditzea da dagoen betebeharrak bakarra.

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

FELIPE
MADINA
ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 943 79 13 78

"PAL"
burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

ARRASATE
HOTELA

Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE

Hiru arrasatear gose greban



Kepa Urrea.



Goio Etxabe.



J. Ignacio Gaztañaga.

Hiru preso mondragoetar gose greban daude pasa den hilaz geroztik euren eskubideak aldarrikatzen. Beste 137 euskal preso politikorekin batera, bat egin dute pasa den azaroaren lehen preso politikoei ekin zioten gose greban. Oinarrizko eskubideak errespetatzea da gose greban dauden presoek eskatzen dutena; hau da, zigorraren hiru laurdenak beteta

dituzten presoak eta gaixorik daudenak aske uztea batetik, eta zigorra bete behar dutenek etxetik gertuen dagoen kartzela batean betetzea, bestetik.

Honela bada, Goio Etxabe Azkuagak apirilaren 19an ekin zion gose grebari. Amnistiaren Aldeko Batzordeak jakinarazi duenez, Martutenen dagoen preso politikoa honek dagoeneko 9 kilo galdu ditu,

baina bestela, ondo dago.

Alcala-Mecon dagoen Kepa Urria Guridi arrasatearrak, berriz, pasa den hilaren 29an hasi zuen gose greba. Eta azkenik, Jose Inazio Gaztañaga, Granadako kartzelan dago eta apirilaren 30az geroztik dago gose greban.

Gose greban dauden kideekin elkartasunean, beste 36 euskal presok bi eguneko itxialdiak egingo dituzte txandaka. Hauen artean, Alcalako espetxean dagoen Josu Arkauz mondragoetarra ere badago.

Egoera honen aurrean, kale agerraldia deitu du gaur iluntzerako Amnistiaren Aldeko Batzordea elkarteak. Arratsaldeko 19:30ean irtengo da Seberotik.

Gurutze Gorriak anbulantzia izango du larrialdietarako



Gipuzkoako Gurutze Gorriak berriro ekingo dio larrialdietako anbulantzia zerbitzuari. Astelehenean anbulantzia bat dago San Prudentzioko Gurutze Gorriko postuan.

1998an utzi zioten zerbitzua eskaintzeari, diru arazoak zirela. Horrez gain, boluntario gutxiago egoteak ere izan zuen zerikusirik erabakian. Denbora horretan DYAk bete ditu Debagoieneko larrialdi kasuak. Antzuolako egoitzan duten anbulantzia bakarrarekin egin dute hori.

San Prudentziokoarekin batera, orain dela urtebete eta, Gipuzkoako 16 ordezkarietaz erabaki zuten zerbitzua etetea. Orain, berriz hasteko erabakia ez dute guztiek batera hartu.

Kontuak kontu, San Prudentzioko Gurutze Gorriko egoitzan astelehenean hasiko da larrialdietako anbulantzia lanean.

Eta berarekin batera Antzuolako DYArena ere ibiliko da Debagoieneko larrialdietan.

Euskararen erabilera bultzatuz

Arrasateko Udalak hainbat neurri hartuko ditu kontratatzen dituen lanetan ere euskararen erabilera bultzatzeko. Udalak kontuan hartuko ditu herritarren hizkuntza eskubideak hainbat zerbitzu kontratatzeko orduan. Udalaren ustez, kanpoan kontratatzen dituen zerbitzuak, zerbitzu publikoak dira. Beraz, zerbitzu horietan ere mondragoetarren hizkuntza eskubideak bermatu beharko dira: herritar batek zerbitzu horietako bat

euskaraz eskatzen badu, euskaraz eman beharko zaio, gaztelaniaz ematen den moduan.

Horregatik, hemendik aurrera zerbitzu bat kontratatu aurretik, Euskara Batzordeak txosten bat egin beharko du. Herritarren hizkuntza eskubideak betetzeko enpresa horrek zein irizpide erabili beharko dituen zehaztuko da aipatutako txostenean.


Enpresak ezarritako baldintzak bete ezean, espedientea irekiko zaio.

Horrekin batera, Arrasaten egiten diren lanetako seinaleak euskaraz eta gaztelaniaz idaztea erabaki du Udalak, beti ere, euskarari lehentasuna emanda. Berdin da lanak Udalak berak egindakoak diren, berak kontratatutako enpresek edo partikularrek.

Era berean, nazioarteko sinboloak erabiliz piktogramen bidez egin daitezkeen seinaleetan mezu idatzirik erabiliz gero, euskarazko testuak erabiliko dira bakarrik.

HIES BERRIA

Tel.: 943 79 26 99



EGUZKIGRAF
inprimategia

ARETXABALETIA

Industrialdea F-0-4
Telefono: 794844
Fax: 792941

Monte taberna

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

Hemen ditugu
San Viator eta

San Frantzisko Xabier
ikastoletako DBHko 3.

mailako frantseseko

ikasleak. Joan den

martxoan astebete pasa

zuten Bretoniako Kemper

eta Bresten. Hil honetan,

berriz, bretoiak etorriko

dira Arrasatera.



BRETOIEKIN ELKARTRUKA

Erguin elkarteak irabazi zuen aurtengo
doke txapelketa, Xanti Unamuno eta Juan
Vitoriari esker. Bigarren Leze Txiki
elkarteko Anton Zumalde eta Felix Gainza-
rain izan ziren, eta hirugarren Txalaparta
elkarteko Jose Angel Barrutiabengoa eta
Juan Luis Merino; laugarren, berriz,
Egipeko Paco Bedia eta Jose Mari Jausoro.
Zorionak guztioi!


ERGUIN TXAPELDUN



TXIRRITA
Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35



MARKO-JARTZEAK
ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84



ostantz1@ostantz-arrasate



ostantz2@ostantz-arrasate



ostantz3@ostantz-arrasate



ostantz4@ostantz-arrasate

www.ostantz-arrasate.com


(bukatzeke)

ARRASATETIK ANDALUZIARA



Toki Argiko erretiratu etxekoek oporrak zer diren badakite, bai horixe! Andaluzian izan ziren eta bederatzi egunetan San Lucar de Barrameda, Jerez de la Frontera, Sevilla, Cadiz, Doñana, Chipiona eta Kordobatik pasatu ziren.

Chipionan ez zuten Rocio Jurado ikusi, baina San Lucar de Barramedan katedrala bai. Argazkia hantxe atera zuten 55 lagunek.



JAI GIRO BIKAINA SAN ANDRESKO JAIETAN



ZORIONAK TXAPELDUNEI

Toki Argiko erretiratuen etxean musean, tutean, briskan eta kuatrolan onenak zeintzuk diren badakigu. Hauek izan ziren 42 bikotetatik azkarrenak, ezkerretik eskumara:

Dionisio Bastardo, Daniel Arizabaleta, Jaime Nieto, Rafael Fernando, Claudio Barreno, Lucia Perez, Isidro Izurrategi eta Jose Manuel Uriarte elkarteko presidentea. Argazkian Daniel Ruiz batzarkidea ere badago, hirugarrena ezkerretik.

Arrasate Irratia berriz ere uhinak astintzen

1994ko azaroaren 2an izan zen. 107.7n udal-irratia hasi zen mondragoetarrei hizketan. Arrasate Irratia jaio zen egun horretan eta Nerea Zubietek eta Patxi Monterok izan zuten horren ardura. Jadanik 6 urte pasa dira egun hartatik eta astelehenean, bi hilabetez isilik egon eta gero, berriro hasiko da uhinak astintzen Arrasate Irratia. Oraingoan, ordean, udal-irratia izaten segituko duen arren, ARKOk kudeatuta ekingo dio lanari. Gidari lanetan Alazne Ostolaza eta Aitziber Aranburuzabala arituko dira.

Lehenengo urte haietan ere bi hilabete eman zituen Arrasate Irratiak probak egiten, emittitzen hasi arte. Bigarren epealdi honetan ere horrela izan da, isilik egon da irratia. Izan ere, leku aldaketak eta makinaria berrien instalazioak denbora behar izaten dute. Baina, jadanik dena prest dago berriz ere goizean goiz, uhinen bidez, Arrasateren berri ematen hasteko. Eta punta-puntako teknologiarekin egingo du gainera. Izan ere, Arrasate Irratia digitalizatu egin dute.

IRRATIA ARKORA

Urteak dira ARKOk Arrasate Irratiaren kudeaketa beregain hartzea nahi zuela. 1997ko ekainaren 11n, esaterako, Arrasate Irratia ARKOn egotzako lokal berrietara aldatzea aurreikusi zuen Euskara



Aitziber, Maier, Alazne eta Gaizkak osatuko dute hemendik aurrera Arrasate Irratia.

Batzordeak. Hala ere, hainbat urte pasatu behar izan dira horretarako. Joan den apirilaren 5ean, Udalak eta ARKOk Arrasate Irratia ARKOn kudeaketapean uzteko hitzarmena sinatu zuten. Agurtzane Gainzarain ARKoko kudeatzaileak azaldu digunez

“Arrasate Irratiak Udalarena izaten segituko du, baina Udalak ez ditu bertan aritzeko langileak kontratatuko. Hori, ARKOk egingo du. egingo du irratia”.

BERRITASUNAK NONAHI

Arrasate Irratiak, beraz, egoi-

tza aldatu du. Arrasate Pasealekua utzi eta Otalora Lizenziatura pasatu da, Arrasate Press eta Arrasate Telebista dauden Udalaren eraikinera.

Baina, horrez gain, langileak ere berriak ditu. Aitziber Aranburuzabala berri-berria ere ez da Arrasate Irratian.



Patxi Montero eta Nerea Zubiete, udal-Irratiko lehen arduradunak.

Lehen ere "Goizoro" saioa egin zuen, hainbat kolaboratzaileekin. Orain, Alazne Ostolazaren laguntza izango du. Itziarko neska

honek gidatuko ditu goizeko informatiboak. Maier Urangak ere goizeko saioak osatuko ditu. Tekniko lanetan Gaizka Vitoria arituko da.

Taldea, beraz, osatuta dago, baina kolaboratzaileak zer?

KOLABORATZAILEAK BEHAR-BEHARREZKOAK

1996ko otsailaren 14an 100 lagun inguru ari zen Arrasate Irratian laguntzaile. Garai har-

tan 16 saio emititzen ziren 107.7n. Batzuk aipatzearen, "Jailarai" eta "Zoroklasikoak" ditugu. Arrasate Irratia udal-

irratia izanik, zerbitzu publiko irekia izan

da eta horri eutsi nahi diote aurrerantzean ere. Horretarako laguntzaileak beharrezkoak dira eta aurreko laguntzaileek egindako irra-

ti-saioek betetzen bazuten irrati-programazioa, aurrerantzean ere horrela izaten segituko du. Xabier Zubizarreta alkateak ere, horixe uste du "irratia asko balio du herriko koesioa bilatzeko, jendearen arteko harremanak bilatzeko, parte hartzea ere posi-

ARRASATE IRRATIAREN EGUN GARRANTZITSUAK

- 1994-3-22** Eusko Jaurlaritzak herri-irratien jarduera arautu zuen.
- 1993-11-22** Gobernu Batzordea udal-irratia berehalakotan abian jartzearen alde agertu zen.
- 1994-4-13** Euskara Batzordeak udal-irratia martxan jartzeko eskaera egin zuen.
- 1994-11-3** Eusko Jaurlaritzak FMko 107.7 frekuentzia izendatu zuen Arrasate udal-irratiarentzat.
- 1994-12-28** Arrasate Irratiaren programazioa lau orduraino zabaltzea eskatu zuen Euskara Batzordeak.
- 1996-2-14** 100 lagun inguru ziren Arrasate Irratiko laguntzaile. Programazioa goizeko 11:00etatik 13:00etara luzatzen zen.
- 1997-1-15** Arrasate Irratiaren audientziari buruzko ikerketa egin zuen Igor Kalzada Mugikak, Deustuko Soziologia Fakultateko ikasleak. Haren arabera, 15 urtetik gorako arrasatearren %32,1ek entzuten zuen orduan Arrasate Irratia.
- 1997-6-11** Euskara Batzordeak irrati soinu-teknikaritzarako praktikak egiteko beka sortzea proposatu zuen.
- 1997-6-11** Arrasate Irratia ARKOn egoitzako lokal berrietara aldatzea aurreikusitako zuen Euskara Batzordeak.
- 2000-4-5** Arrasateko udalak eta ARKOk Arrasate irrati ARKOn kudeaketapean uzteko hitzarmena sinatu zuten. Horri esker, udalak eta ARKOk udal-irratia elkarlanean kudeatu eta finantzatzuko dute.

ble da eta abantaila asko ditu Arrasate Irratiak ekarpen politak egin diezazkiokela arrasatear bakoitzari eta herri osoari".

Alazne, Aitziberrek, Maierrek eta Gaizkak ere

horrela uste dute. Laurek ematen diote garrantzia parte hartzeari. ■

Marijo Deogracias eta Ubane Madera



Gari Kortazar eta Aitziber Aranburuzabala, Irratiko bigarren arduradunak.



Arantxa Egoskozabal eta Marian Porcel Irratiko azken arduradunak.



ALAZNE OSTOLAZA

ALBISTEGIA ETA KOLABORATZAI-LEEN ARDURA

Alazne Ostolaza Iriondok hilabete barru 26 urte beteko ditu. Itziartarra jaio- tzez eta izatez, beka- dun hasi zen irratian orain urtebete. Hiru hilabetez jardun zuen modu horretan eta irailean irratiko lan- gile izateko azterke- tara aurkeztu eta gainditu zuen: "Hasie- ran bekadun postua zego-

ela eta besterik barik aurkeztu nintzen, nahiko itsuan. Pro- batu ondoren, baina, gustatu egin zitzaidan, eta lanpostura- ko aurkeztu nintzen".

Pertsona urduria dela dio Alaznek eta ,era berean, irra- tiak sortarazten duen urduritasunak erakartzen duela adie- razi du: "Irratiaren bat-batekotasunak eta egunerokotasu- nak ematen duen urduritasunak erakartzen nau".

Irratia herritarren eskura ipintzea da Alazneren nahia. "Orain bultzada handi baten beharrean dago. Berriro ere irratia jendearen ahotan egotea nahiko nuke. Jendeak eza- gutu dezala, eta noski, herritarrek parte har dezatela"



MAIER URANGA

PRODUKZIOA ETA ESATARIA

21 urteko arrasatea- rra da Maier. Ando- ainen produkzio ikasketak egiten dabil eta handik Arrasate Irratira bidali dute derrigo- rrezko praktikak egi- tera. "Telebista auke- ratu nuen praktike- tarako, baina orain oso pozik nago irra- tian, gehiago gusta- tzen zait".

Lehendik ere egina zuen lana irratian; irratia ematen duen anonimotasuna du gus- tuko: "Irratian jendeak ez dit musua ikusten. Ahotse ent- zutearekin jendeak ez du imajinatzen nolakoa zaren".

Praktiketako langilea izan arren, denetarik egiten du Maie- rrek: irratia antolaketa, produkzio lanak... Ordubeteko irratsaioa ere izango du egunero. Entzuleen partehartzea bul- tzatuko du bere saioaren bitartez: "Jendeak irratian hitz egi- tea da nire helburua, nahi duena esatea; nik bakarrik saioa zuzenduko dut".



AITZIBER ARANBURUZABALA

"GOIZORO" MAGAZINA

Arrasate Irratiko aspaldiko langilea da Aitziber; irratiko zuzendari ere izana da. Eskoitzarra sor- tzez, Oñatin bizi da orain. Betidanik gus- tatu izan zaio irratian lan egitea: "Nire txi- kitako ametsa izate- az gain, gehien lan- du dudana komunika- bidea da eta agian horrexegatik gustatzen zait hainbeste irratia".

Orain arteko Magazina lantzen segituko du, egunero ordu eta erdiz. Elkarrizketak, kultura, osasuna, kontsumoa, kirolak... denetarik landuko du Aitziberrek bere irratsaioan: "Motz gera- tu izan diren tarteak luzatuko ditut eta jendeak hain gustuko ez zituenak aldatu... moldaketaren bat zein beste izango da, bai".

Jendearen partehartzea lortu nahi du Aitziberrek: "Tele- fonoak zabaltzea da nire nahia. Arrasate Irratian lanean gabil- tzanok eta baita irratiko entzuleek ere irratian sinistea da niri gustatuko litzaideakeena. Denon onerako den zerbitzua da irratia, mikrofonoak zabalik daude nahi duenarentzat".



GAIZKA VITORIA

TEKNIKARIA

Eibartik etorri da Gaizka irratiko atze- ko lana betetzera. 22 urterekin Andoainen ikasketak bukatu, hemen praktiketan hasi eta gurean da oraindik: "Besterik barik hasi nintzen irratian, praktikak egiten, baina gustatu egin zitzaidan eta hementxe nago".

Irratian dauden aparailuekin egiten du lan Gaizkak eta horretan segituko du astelehenetik aurrera. Berak zaintzen du kan- potik entzun beharrekoa: mikrofonoen kontrola, entzuten dugun musika...Eta hemendik aurrera teknologia digitala.

Eta gustuko du bere lana: "Irratiko lana probatu eta gus- tatu egin zitzaidan, dinamikoa da, egunero musika entzuten dut irratia esker...".

Arrasate Irratian seriotasuna lortzea da Gaizkaren nahia: "Azken denboraldian kili-kolo zegoen guztia eta egoera hori aldatzea nahiko nuke, jendeak Arrasate Irratia irratia serio bat dela ikustea".

MAISABEL ISASMENDI (ATZEGIREN ORDEZKARIA DEBAGOIEN

“Atzegizaleak behar dituzte”

Bere 40. urteurrena betetzen du aurten Atzegik, Gipuzkoan adimen urritasuna duten pertsonen aldeko elkarteak. Horko partaide dugu Maisabel Isasmendi arrasatearra. Aholkularitza batean egiten duen lanari tarteak bilatzen dizkio Maisabelek Atzegik eskatzen dion ahaleginarekin betetzeko. Orain dela 8 urte, Debagoieneko ordezkaria eta Batzorde Eragileko kide da.

— Nola sortu zen Atzegi?

— Orain dela 40 urte, adimen urrikoen aita-ama batzuk konturatu ziren euren seme-alabak etxean, izkutuan, gertzea baino beste irtenbiderik ez zutela, alegia, gizarteak ez ziela ezer ere eskaintzen. Erakunde publikoek hori alda zezaten indarra egiteko sortu zuten Atzegi. Gutxituen familiak gara bazkideak, eta ordezkaritzak daude Gipuzkoako eskualde guztietan.

— Nola egiten duzue lan?

— Bulego nagusia Donostian dago, eta bailara bakoitzean ordezkari bana dago. Donostian eta bailaran oso ezberdina da lana: hangoek eguneroko lana egiten dute, eta bailarakook, berriz, batzar periodikoen bidez egiten dugu aurrera. Beti saiatzen gara herri bakoitzeko bateren bat izatea, herri guztietako kezakak eta ardurak jakiteko. Hala ere, esan beharra dago Atzegiren erronkak eta lorpenak kide guztiontzat direla. Zentzu horretan, funtzionamendua ez da bailaren arabera zatitzen.


— Nolakoa izan da gaurdainoko ibilera?

— Oso ona. Gauza asko hobetu dira Atzegiren etenbariko lanari esker, nahiz eta beti dagoen zer edo zer egiteko. Beharren bat sumatzen den arloan, horixe egiten du lan Atzegik,

harik eta administrazioaren-gandik erantzuna jasotarte. Lehenik eskolalak, gero lantegiak, egoitzak, ondoren aisialdia, kirola, etxebizitza... horiek izan dira lan esparruak. Lehen Atzegik lantzen zituen horiek, administrazioaren laguntzarekin, jakina. Ondoren, Diputazioak Uliazpi Fundazioa sortu zuen, Atzegiren lana sustatzeko.

— Eta jendearen ikus-

“Atzegizale izatea gutxituen adiskide eta laguntzaile izatea da”



NEAN)

itugu”

pegiari dagokionez?

— Hori ere neurri berean joan da aldatzen. Hara: sasoi hartan, gutxituak “Jainkoaren madarikazio” bezala ikusten ziren. Asko abandonatuta geratzen ziren, eta besteak etxean sartuta edo psikiatrikoetara eramaten zituzten. Ikuspegi hori aldatzea lortu dugu. Hor oinarri sendoa dago, baina sekula ezin dugu esan dena eginda dagoenik; beti dago zeredo zer egiteko.

— Zuen jarduera ez da edonolakoa, baina badago ezer gogorrago egiten zaiuzena?

— Bai. Egunero-egunero aurrera egitea da lortu beharrekoa. Gainera, tamalez, ez dugu informazioa hedatzeko baliabide handirik. Kontaktu bidez, ahoz ahoko informazioaren bidez ematen dugu jakitera gure lana. Horretarako, ospitaletan, udaletan... kontaktuak lortzen saiatzen gara.

— Zuen hurrengo urratsa zein izango da?

— Informazioa zabaltzea eta gizartea sentsibilizatzea. 40 urte bete ditugun arren, oraindik gure berri ez duen jende asko dago. Norbaitek beharren bat badu, gu hortxe gaudela jakinarazi nahi diogu, Atzegi familientzako euskarri izateko sortu baitzen. Adibidez, urritasunen bat duen umea jaiotzen denean, guraso horiek informazioa eta sustengua behar dute, eta horretarako gaude gu. Hori alde batetik. Bestetik, gure kanpaina hone-

tan nahi duguna gizarte osoari mezu bat zuzentzea da: Atzegizaleak behar ditugula.


— Zer da Atzegizale izatea?

— Gure gutxituak laguntzeko prest egotea. Mezua oso sinplea da: gutxituak aurkitzen dituzunean, lagun iezaiezu, ez presaka hasi, ez itzazu urduri jarri... Eta hori edonon: kalean, lanean, ikastetxean, kirola egitean... Hitz gutxitan esateko, atzegizale izatea gutxituen adiskide eta laguntzaile izatea da. Kanpaina hori ez da sekula amaituko: beti behar izango ditugu Atzegizaleak. Gizarteak izan duen bilakaerak bultzatutako zerbait izan da. Adimen urrikoak orain hasi dira gizartean txertatzen, eta horretarako laguntza behar dute.

— Baduzue epe laburre-rako beste egitasmorik?

— Bai. Aretxabaletan euren kabuz balia daitezkeen urrituentzako etxebizitzak prestatzen hasiak gara. Gipuzkoan baditugu dagoeneko era horretako 11 etxebizitza, baina hau izango da Debagoieneko lehenengoa. Etxebizitza normal baten modukoa izango da, nahiz eta begirale batzuk izango diren. Eta, esan bezala, lorpen guztiak orokorrak dira; beraz, Aretxabaletan izateak ez du esan nahi bailarakoentzat bakarrik izango denik. Elkar-teko edonor joan daiteke hara bizitzera. Hala ere, esan beharra dago Atzegi urratsez urrats lan egiten duen elkarte dela. Ez dugu sekulako egitamu handirik izaten. ■

tarjeta gazte kutxa txartela



"Bizitza abentura handi bat duzu. Eta zuku osoa atera nahi badiozu, hementxe daukazu **Gazte kutxa txartel berria**. Doakoa da, handik eta hemendik lasai asko ibiltzeko erabil dezakezuna, eta denetarik egin eta nahi duzun guztia erosteko erabil aukera emango dizuna. Orain, gainera, abenduaren 31 arte, erosketak musutruk egin ditzakezu 'Dohainik Erosi' sustapenaren baitan."

Besterik behar, ala?

www.gazte kutxa.net
e-mail: gazte kutxa@kutxa.es
900 40 41 42

Egin klik! hemen, abenturan jarraitu eta sariak irabazi ahal izateko.



gazte kutxa

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

- LOREA ARAMBURU Dk. Instituto mediko palacio mendia. Erdiko Kale, 22-1. ☎ 943 79 72 16

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETXEA Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kirodegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7-1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldeaz) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3-1-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Análisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BÉNGOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎ 989 58 66 89

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ☎ 943 79 20 18

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

Berriz ere jokora

Bakarrik dago mutila. Bere kideen zain. Lasai motel, lasai. Zapatuan berriz hasiko da Zaldibarko txapelketa. Bigarren aldia abian.



Bi astebururen ondoren, berriz ere jokatzen hasiko dira Zaldibarren. Bigarren aldiari ekingo dio txapelketa zapatuan bertan. Eta horretarako, antolakuntzak fase honetan kontuan hartu beharko diren arauen berri eman du:

- Jokalari batek atezainari baloia pasatzen badio, honek ezingo du eskuekin hartu.
- Area barruan alboko sakea egonez gero, atezainak ezingo du baloia eskuekin hartu.
- Baloia atezainak jokalaritari ematen badio, honek area kanpora irten beharko du baloia ikutzeko.

EPAILEAK BEHAR DIRA

Orain arte, Zaldibarko txapelketako neurketetan, talde guztiak epaile lanetan aritu behar izan dira. Eta bati baino gehiagori buruhauste ederrak sortarazi dizkio eginbehar horrek: talde bat baino gehiago kale-ara bidali dute epaitzera ez agertzeagatik. Hemendik aurrera, bigarren aldian jokatuko duten taldeek ez dute eginbehar hori izango. Antolakuntzak izango du horren ardura. Baina, horretarako laguntza behar dute. Epaile lanetan aritu nahi duen edonork Iratira jo beharko du izena emateko.

LIGAXKA HIRU ASTEZ

Zaldibarko txapelketa hiru aste iraungo du eta ligaxka bezala jokatuko da. Gero izango dira final laurdenak, final erdiak, hirugarren eta laugarren tokiak eta finala.

Ekainaren bigarren aste-buruan finala jokatzea espero dute antolakuntzakoek.

BIGARREN ALDIKO TALDEAK

A taldea

Timoftol
IKP
AC Surkos
Garaje Oscar

B taldea

Dribling

Komando Alpargat
Ettxerat Taberna
Kanpazar Harrobia

D taldea

Orlando Piratas
AT Lokala
Aldibi
Irati STS

E taldea

You Know
DA Iriztu
Branka Taberna
Kamasutra

Bigarren aldiako 1. jardunaldia

Iarunbata, 6

Zaldibar	Epailea
10:50 Ettxerat Taberna-Kan. Harrobia	(Juanito, Egoitz)
12:00 Aldibi-Irati STS	(Juanito, Egoitz)
13:00 Komando Alpargat-Dribling	(Juanito, Egoitz)
15:50 IKP-Timoftol SMD	(Calaberas, Abel)
17:00 DA Iriztu-Branka Taberna	(Calaberas, Abel)
18:00 AT Lokala-Orlando Piratas	(Calaberas, Abel)

Igandea, 7

Zaldibar	Epailea
11:50 AC Surkos-Garaje Oscar	(Bull)
13:00 You Know-Kamasutra	(Rober)

TXIRRINDULARITZA Oporrik ez

 Dorletako Ama Txirrindulari Eskolako txirrindulariek lasterketak jokatu zituzten joan den asteburuan. Arrasate Kirolak taldeko infantilak Azkoitian izan ziren. Jon Lete mondragoetarrek lasterketa bikaina egin zuen eta bigarren helmugaratu zen Atxukale taldeko Igor Romeroren atzetik.

Aste honetan Bergaran arituko dira arratsaldeko 16:30etik aurrera.

JMAko lehen urteko kadeak Deban izan ziren. Haue-na, ordea, apirilaren 29an izan zen. 51 kilometroko ibilbidea

izan zuten eta JMAko lau txirrindularik hartu zuten parte, baina taldeko bi txirrindularik bakarrik amaitu zuten: Jon Racionerok eta Josu Galanek. Igandean Urnietan arituko dira, 16:30ean. Oraingoan 45,5 kilometro egin beharko dituzte.

Fagor taldeko gazteek, bestalde, bi lasterketa izan zituzten Aste Santuan. Apirilaren 29an Arantzazuko igoera jokatu zuten. Azken malda gogorra izan zen oso. Irabazlea Zarauzko Joseba Zumeta izan zen. Fagorretik azkarrena Josu Beitia izan zen, 37. postuan sailkatua.

Hurrengo egunean Zumarragan aritu ziren eta erdiko postuetan helmugaratu ziren Aitor Frutos, Josu Beitia eta

Imanol Solis.

Larunbatean Lazkaon saiatu beharko dira berriz ere.

FUTBOLA Derbia Atxabalpen



Aste Santuko oporraldiaren ondoren, jo eta su hasiko dira berriz ere Mondrako futbol taldeak. Eta Atxabalpen izango dute gehienek aste honetako partida. Lehen erregionaleko jokalariek derbia izango dute jokoan. Larunbatean Aretxabaletaren aurka jokatu du Juanina Garairen hamaika-koak. Atxabaltarrak azke-

naurrekoak dira sailkapenean, eta, beraz, mondragoetarrek ez dute zailtasun handirik izango partida irabazteko. Norgehiagoka arratsaldeko 16:30ean hasiko da.

Etxean arituko dira baita ere ohorezko gazteak Urolaren aurka (zapatua, 12:30); 2. mailako gazteak Basconiaren aurka (domeka, 10:00); ohorezko kadeteak Real Sociedad taldearen aurka (belarrezko zelaian arituko dira domekan, 12:00etan) eta ohorezko infantilak Antiguokoren aurka (zapatua, 09:30).

Bigarren kadeteek, berriz, Antzuolan jokatu dute eta neskek Almenen aurka jokatu dute kopako azken partida.

Sevillarrak onenak Atxabalpen



2 eta 0 irabazi zieten sevillarrekin ingelesei.

Real Sociedad taldeak antolatatu zuen gazte mailako nazioarteko txapelketa Atxabalpen ere jokatu zen Aste Santuan. Sevilla eta Manchester United taldeen arteko norgehiagoka ikusi ahal izan zuten Atxabalpera gerturatu zirenek.

Giro polita egon zen

partidan zehar eta baita ondoren ere. Izan ere, Al Andalus elkartera joan ziren bi taldeak Mondrako zuzendaritzarekin, eta hantxe kantuan eta dantzari ibili ziren.

Sevillarrekin irabazi zuten 2 eta 0 eta agian horrek eragin zuen giroa aparta izatea Al Andalusen.

Bigarren mailara igo da Kenci Arrasate



Bigarren mailan jokatu du Kenci Arrasatek hurrengo denboraldian.

Iaz atarian gelditu ziren Kenci Arrasatekoak, baina aurtien ez dute kale egin. Lortu dute denboraldi hasieran zuten helburua: mailaz igotzea. Joan den asteburuan Durangon jokatu zuten eta sufritu arren 88 eta 89 irabazi zuten. Tabirakoren aurka jokatu zuten, baina Hernandez, Kintana eta Bidaburu aulkian eserita egon ziren eta Garrido eta Ayala, berriz, min hartuta.

Datorren denboraldian Askatuak eta Atletiko San

Sebastian talde indartsuekin batera arituko da lehian.

LARUNBATEAN AZKENA

Iturripen denboraldiko azken norgehiagoka jokatu du Kenci Arrasatek. Azpeitiko Jostaldiren aurka arituko dira, arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

Bigarren mailara igo direla kontuan izanik, partida Kenciren jaia izango da. Hori dela eta, jokalariek zale guztiak gonbidatu nahi dituzte Iturripera larunbatean.

Euskal Herriko atletismo txapelketa

Arrasate Kirolak Atletiko Taldeak Euskal Herriko taldeen arteko txapelketa jokatu du asteburu honetan. Beste zazpi talderekin batera Iruñeara joango dira Fernando Zufiriaren taldekoak. Lehiakideak Real Sociedad, EHU, Pamplona Atletico, AT San Sebastian, Foronda-Michelin, Santurtzi eta Barakaldoko taldeak izango dira.

Arrasateko taldea laugarren izan zen Aste Santu aurretik Anoetan jokaturako Gipuzkoako Txapelketan. Eta Iruñeara ere talde berbera eramango du. Hemeretzi kirolarik osatuko dute taldea eta Arrasatekoak baino pista eta diru-sarrera handiagoak dituzten taldeen aurka lehiatu beharko dira.

Bergara, Aretxabaleta, Oñati eta Arrasateko kirolariak osatuko dute taldea.

OTALA-ZELAI

Egun berean, baina Elgoibara



Zenbaki banaketa 09:30 - 10:30era bitartean izango da.

ren, Gipuzkoako infantilen txapelketan arituko dira Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko infantilak. Hori larunbatean izango da. Igandean, berriz, Oñate Zelaiko herri-krosa jokatu da. 22. aldiz egingo da herri-kros hau. Joan den urtean ez zuen eguraldiak lagundu, baina, hala ere, jende ugari hurbildu zen Urkulu ingurura. Orduan mexikar batek

irabazi zuen, Joel Hernandezek. Bigarren Manu Hurtado izan zen eta hirugarren Jabier Rodriguez azpeitiarra.

Gazte mailan, berriz, Arrasateko hiru korrikalari izan ziren lehenengoak. Ea bada igandean ere emaitza onak lortzen dituzten herriko korrikalariak. 11:30ean Zelaikua baserritik aterako da lasterketa.

San Isidro saria larunbatean



San Isidro saria arratsaldeko 15:30ean hasiko da.

Datorren astean Musakolako jaiak direla eta, asteburu honetan bigarren urteko kadete mailako txirrindulariek lasterketa izango dute Arrasaten. San Isidro saria izango dute jokoan, larunbatean, 15:30ean.

Arrasate Txirrindulari

Elkarteak antolatu duen lasterketak 52 kilometro izango ditu. Musakolatik irtengo da eta Mugarri-Osintxu-Musakola-Mugarri-Bergara-Musakola izango da ibilbidea.

Helmuga 17:00ak aldera, gutxi gorabehera.

Annapurnarekin ezin

“Modu alpinorik gorrienean mendian gora abiatzeak momentu honetan errespetu pixka bat ematen digu, batik bat Manasluk eman digun pasada eman eta gero”. Hori xe zioten Iñurategitarrek Manaslura igo eta gero. Izan ere, Annapurna zen atxabal-tarren hurrengo helburua. Baina, asteazkenean jakin genuen oso eguraldi txarra zegoela eta ezin izango zutela gora egin. Hori dela eta, Felix eta Alberto etxean izango dira bi aste barru.

Udaberri elurtsua omen da Annapurnan eta egunero botatzen du elurra; elurrolde asko ere izaten ei da.



ARRASATE
KIROLAK

Erantzuna badakizu, ekarri osteguna baino lehen Arrasate Pressera.

Hilaren bukaeran irabazleen artean zozketa egingo da zuzenean Mondrasport saioan, sari mundiala etxeratzeko.

Aurreko asteko erantzuna: A. Kirolaren dauden mendiko kanpadendak COLEMAN markakoak dira. **Galdara:** Arrasate Kirolakeko sarrean dagoen manikiak zein markako kamiseta darama?

Erantzuna:
Izen-abizenak:
Helbidea: Tel.:

Arrazakeriaren aurkako hilabetea



1997an ospatu zen arrazakeriaren aurkako lehen Aste Gaztea.

Arrasateko hainbat erakundek arrazakeria eta xenofobiari buruzko eztabaida piztu nahi dute. San Andres, Uribarri eta Musakola auzoetako Gazte Txokoek, Udaleko Kultura Sailarekin eta arrazakeriaren aurka lan egiten duten hainbat erakunderekin elkarlanean, egitarau bete-betea prestatu dute hil osorako. Horren lehen emaitzak pasa berri den asteen ikusi ahal izan ditugu: rol-jokoak, bideo emanaldiak, mahai inguruak... Guztiak arrazakeriaren eta xenofobiaren inguruan. Garbi dio kan-

paina izenburutzeko aukeratu duten leloak: "Bizitzeko berdintasuna, elkarbizitzeko aniztasuna".

Bihar jarraituko dute arrazakeriaren inguruko sentsibilizazioa sustatzeko ekintzek. Goizeko 11:00etan, auzoetako ludoteketan ume tailerrak izango dira, eta arratsaldean, berri, askaria Uribarrin, 18:00etan. Datorren asteen, zinea izango da nagusi. Izan ere, Udaleko Kultura Sailarekin adostu zuten Gazte Txokoek hil honetako zine kluba arrazakeriaren ingurukoa izate-

tea. Ikusgai izango ditugun filmak ondokoak dira: Las Cartas de Alou, My Family, La Vendedora de Rosas eta Hola, Primo.

Horrez gain, emigrazioaren nondik norakoak azaltzeko erakusketa ibiltariak zabalik jarraituko du. Gaur eta bihar Uribarrin, eta 9an eta 10ean San Andresen ikusi ahal izango da.

Ez dira hauek Arrasaten arazo hori lantzeko egiten diren lehen ekintzak, baina bai Gazte Txokoek antolatu dituzten lehenengoak.

Euskarazko zinema txikientzat

Asteburu honetan, txikiek euskarazko zinema-saio berezia izango dute Alai zinemaren. Bai zapatuan, bai domekan, Bizia- ren Arbola luzemetraia ikusteko aukera izango dute, arratsaldeko 17:00etan.

Biziaren Arbola Farhad Mehranfar zuzendari iraniarraren 1998ko filma dugu. Zinematan iazko abuztuan estreinatu zen, eta orain euskarazko bertsioa ikusi ahal izango dugu. Ordu eta laurdenean, Talesh tribuan sortzen den amodio istorio poetikoa kontatzen digu filmak.

Jaiak hobetoen irudikatuko dituenaren bila

Ekaina hurbil dugu, eta bera- rekin batera, San Joan jaiak. Ekintzarik goiztiarrenetarikoa bat abian dago: San Joaneta- ko kartel lehiaketa.

Aurten, 125.000 pezeta- ko sari bakarra emango dio Udalak jaietarako kartel one- na aurkeztzen duen arrasatear- rari. Parte hartzeko oinarriak ondokoak dira: 50x70 zenti- metroko kartel bertikalak aur- keztu behar dira, "2000 San Joan Jaiak Arrasate" derrigo- rrezko testuarekin. Egilearen nortasuna azaldu gabe eta atze- aldean leloa duela aurkeztu behar dira irudiak. Gutunazal itxi batean lelo bera eta egi- learen datuak adieraziko dira.

Lanak Kultura Sailera eraman beharko dira, maia- tzaren 19an beranduenez. Sari- tutako lana Udalaren esku geratuko da, eta kartel guz- tiekin erakusketa egiteko auke- ra izango du.

Klown eta literatura ikastaroak



Hasi berri dira Udaleko Gazteria Sailak antolatu dituen Antzerki-Klown eta Literatura ikastaroak, baina parte hartu guran bazabiltzate eta izena ematea ahaztu bazaizue, oraindik baduzue ager- tzeko aukera. Horretarako Arrasate Musikalera jo dezakezue larunbatean ber- tan goizeko 10:00etatik aurrera. Gogo- ratu lehen saioa larunbat honetan izan- go dela.

Literatura tailerra Monterronen da, astelehen eta ostegunero, 19:00etan.

JOXEMARI MUXIKA (TOPAGUNEKO LEHENDAKARIA)

“Euskara elkarteek hizkuntza gizarteratzen dute”

Euskararen erabilera sustatzea helburu duten elkarte asko sortu dituzte euskaldunek Euskal Herri osoan. Lehenengo sortutako elkarteak Arrasate Euskaldun Dezagun izan zen eta Joxemari Muxika bertako lehendakari izan zen 1988tik 1993ra bitartean. Joxemari Soziologian lizentziatua da eta hainbat ikerketa egin ditu prentsa arloan. Topaguneari buruz egin dugu berba berarekin.

— Zer da Topagunea?

— Euskal Herri osoko 8.000 bazkide biltzen dituen 40 euskara elkarteren federazioa da eta egoitza Durangon du.

— Nolatan zu Topaguneako lehendakari?

— Euskara Elkarten artean nahiko ezaguna naiz. Topagunearen sorreran Eratze Batzordeko kide izan nintzen AEDren ordezkari bezala. Geroztik, Topaguneako Komunikabide Saileko kide izan naiz ARKOren ordezkari moduan, eta lehendakaritzarako proposamenari uko egiteko indarrak ez dut izan.

— Zein helbururekin sortu zen Topagunea?

— Elkarren euskarri izateko. Euskara elkarteek bakarka ezin antola ditzaketen zerbitzuak ahalbideratzeko. Bakoitza bere aldetik hartzen ari den eskarmentua besteekin trukatzeko. Euskara elkarteak bakarka bideratu ezin dituen jarduerak egiteko. Euskara elkarteek duten helburu bera du Topaguneak ere: euskara gizarteratzea. Euskara elkarerik gabe gure hizkuntza gizarteratzea ezinezkoa litzatekeela uste dut.



— Zein da Topagunearen jarduerak?

— Topaguneak berak ematen dituen zerbitzuez aparte, federatuta dauden elkarteek egiten dituztenak. Zerbitzuen artean daude aholkularitza eta informatika. Aholkularitzan dinamizazioa, kontuak eramatea eta legelartza sartzen dira. Bere jardueretako bat “Kultur Errota” da, elkarteekin batera egina. Euskara elkarten beste jarduerak garrantzitsuenak hitzaldiak, ikastaroak, udalekuak, aldizkariak, euskaldun berriekin harremanak eta era guztietako lehiaketak dira. Hauek adin guztietakoentzat antolatzen dira.

— Noraino iritsi nahi du erakundeak?

— Bazkide diren euskara elkarteak sendotzetik hasi eta euskaldunak bizi diren toki bakoitzean euskara elkarte bana sortzeraino.

“Euskaldunak bizi diren toki bakoitzean euskara elkarte bana sortzeraino iritsi nahi dugu”.

aste gazte

■ UDAKO EKINTZAK

• Diputazioak antolatutako udako egonaldiak, 14-17 urte bitartekoentzat. Ingeles edo frantses egonaldiak; urtekin Almerian eta Valentzian; kirol ekintzak Burgosen eta Huescan; ingurumen ekintzak Avilan; hipika Toledon; zeharkaldia bizikletaz Segovian... Aurreinskripzio epea: maiatzak 10.

■ BRIGADAK

• Komite Internazionalistak elkartearen eskutik, Nikaragua, Mexiko, Kolonbia eta Kubara brigadista joateko aukera. Izen emate epea: maiatzak 15.

• Euskadi-Cuba “Jose Marti” Elkarteak ere brigada bat antolatu du uztaileko, Kuban lan egiteko. Epea: maiatzak 15.

■ LANA

• Durangoko Udaleko “Bartolome Ercilla” Fundazioak klarinete irakaslea behar du. Epea: maiatzak 10.

■ UDAKO IKASTAROAK

• EHU-UPVk urtero antolatzen dituen Udako Ikastaroak. Izen emate epea: maiatzaren 3an hasi eta plazak bete arte.

• Udako Euskal Unibertsitateak uztailean zehar Biarritz eta Iruñean egingo diren ikastaroen berri eman du. Izen emate epea: maiatzaren 15etik ekainaren 16ra.

■ IKASTAROAK

• Gazteria Zerbitzuak Literatura Ikastaroa antolatu du: “idazketa literarioaren lehen pausuak”. Maiatzaren 4an hasi eta ekainaren 1era arte, astelehen eta ostegunetan, arratseko 7etatik 9etara, Monterronen. Matrikula, 3.000pta/2.000pta ikasle edo langabeentzat.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 943 77 00 65



Programazioa

OSTIRALA, 5

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
 Alberto Elorza, Zelaizabal
 jatetxeko sukaldaria.
 13:50 **Ekilan** (errepika).
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
 21:30 **Astebete.** Asteko
 albisterik nabarmenenak,
 Eneko Azkaratek
 aurkeztua.
 22:00 **Gatza eta Berakatza**
 (errepika).
 22:15 **Soinuz Blai** (errepika).

LARUNBATA, 6

- 13:30 Asteko saioen errepika:
Jolasplast, Gatza eta Berakatza, Hamaika Magazin, San Andres Jaiak 2000, Ekilan, Soinuz Blai, Astebete.

IGANDEA, 7

- 13:30 Asteko saioen errepika:
Jolasplast, Gatza eta Berakatza, Hamaika Magazin, San Andres Jaiak 2000, Ekilan, Soinuz Blai, Astebete.

ASTELEHENA, 8

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
 Edurne Izarrelaia,
 Dukiena jatetxeko
 sukaldaria.
 13:50 **Astebete** (errepika).
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
 21:30 **Mondrasport.**
 22:00 **Gatza eta Berakatza**
 (errepika).

ASTEARTEA, 9

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
 Aitor Aizpurua, Iturritxo
 jatetxeko sukaldaria.
 13:50 **Mondrasport** (errepika).
 19:20 **Jolasplast.**
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
 21:30 **Hamaika Magazin.** Aste
 honetan Matisse

margolari inpresionista
 aztertuko da. Petunien
 edertasuna gozatuko
 dugu. Sexuarekiko
 gehiegizko zaletasuna
 ere aztergai izango da.

- 22:00 **Gatza eta Berakatza.**
 (errepika).

ASTEAZKENA, 10

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
 Mari Karmen Telleria,
 Garoa jatetxeko
 sukaldaria.
 13:50 **Hamaika Magazin**
 (errepika).
 20:00/20:30 **Berriak.**
 21:00 **Alkatearekin berbetan.**
 22:00 **Gatza eta Berakatza**
 (errepika).

OSTEGUNA, 11

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
 Bixente Pagoaga,
 Mitartegarai jatetxeko
 sukaldaria.
 13:50 **Alkatearekin berbetan**
 (errepika).
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
 21:30 **Musiklasik.**
 Arrasate Musikaleko
 Banda Txikia, fagot
 taldea, saxofon taldea
 eta Amaia Antzokian
 argentinarrek emandako
 kontzertua.
 22:00 **Gatza eta Berakatza**
 (errepika).
 22:15 **Soinuz Blai.** Edu
 Abasolorekin.

OSTIRALA, 12

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
 Eulali Maskiaran,
 Matikua jatetxeko
 sukaldaria.
 13:50 **Ekilan** (errepika).
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
 21:30 **Astebete.** Asteko
 albisterik nabarmenenak,
 Eneko Azkaratek
 aurkeztua.
 22:00 **Gatza eta Berakatza**
 (errepika).
 22:15 **Soinuz Blai** (errepika).

Gatza eta Berakatza

PLATERAK: Postreak

NOIZ

PLATERA

Astelehena 8	Arrozesne tarta.
Astearte 9	Limoi musez beteriko laranja.
Asteazkena 10	Garoa kopa.
Osteguna 11	Piku tarta.
Ostirala 12	Arroz flana.

Lore

• Lurrindegia • Kabina •
 • Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
 ARRASATE

**BASABE
 JATETXEA**

Menu eta afariak
 Boda eta banketeak
 Tel.: 943 79 91 84

ARETXABALETA

Udalaren gorabeherak

Alkatearekin Berbetan asteazkena, 21:00

Hilabete batzuk igaro dira Xabier Zubizarreta udal-hauteskundeak irabazi eta alkateztan jarri zenetik. Datorren asteazkenean Arrasate Telebistan izango da, Arkoko kazetarien galderei erantzuteko gertu.

Saioaren aurkezle Marijo Deogracias izango da, Arrasate Presseko zuzendaria. Berarekin batera, beste bi kazetari izango ditu: Maider Osa, ATBko albistegietako aurkezlea eta Alazne Ostolaza, Arrasate Irratiko albistegietako arduraduna.

Betiko moduan, ikusleek ere aukera izango dute programan parte hartzeko. Nahi duenak programaren azken atala aprobetxa dezake telefonoz deitzeko eta alkateari galdera bat egin edo iritzia emateko.



Aurreko Alkatearekin Berbetan saioan Jose Mari Loiti izan zen.


**Arrasateko alkateari galdera egin nahi izanez gero
943 71 23 93 zenbakira deitu behar duzue.**

ATBn esanak



“Nire alderdikide bati edo niri ezer gertatuz gero, errudun zuzena Arrasateko alkatea izango da. Izan ere, berak eta bere taldeak badakite nola gerarazi era honetako gauzak”.

Paco Garcia
PSE-EEko zinegotzia



“Bakoitza egiten duenaren erantzule da. Nik neure erantzukizunak ahalik eta ondoen betetzen saiatuko naiz eta berari ere eskatuko nioke inori erruak bota orde, saia dadila bere lanak ondo egiten”.

Xabier Zubizarreta
Arrasateko alkatea

Motzean

Aitziber Aranburuzabala



Talde berriko beterranoa dugu Aitziber. Eskoriatzan jaio zen orain 28 urte eta kazetaritza egin ostean, Arrasate Irratian hasi zen lanean. Guztira hiru bat urtez egin du lan irrastian; era guztietako lanak, gainera.

- **Zergatik esatari?**
• Irratia betidanik gustatu izan zaidalako.
- **Lanbidez aldatzekotan?**
• Eskulangilea edo zinemarekin lotutako zerbait.
- **Euskadi Irratia ala Radio Euskadi?**
• Euskadi Irratia.
- **Irratsaiozik gustukoena?**
• Carta de ajuste, Herri Irratian.
- **Miresten duzun esatari bat?**
• Mariano Ferrer.
- **Irakurri duzun azken liburua?**
• Ostegunak, Jon Arretxerena.
- **Zer abesti eskainiko zeniguke?**
• No Woman No Cry, Bob Marley-rena.
- **Non izan zara oporretan?**
• Lizarran, Nafarroan.
- **Zure dohain bat?**
• Pazientzia.
- **Amets bat?**
• Neure buruarekin gustura egotea.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxe salgai, Errioxan, Logroño inguruan. Tel.: 945 65 82 22. Adela. Astelehenetik ostiralera, 10:00 - 13:00, 17:00 - 20:00.

• Meatzerrekan guztiz berritutako baserria salgai, luxuzkoa. "Aitzapi" izena du baserriak. Tel.: 943 79 70 25.

2. Erosi

• Etxe bat erosiko nuke herri erdian, igogailuduna. Tel.: 943 79 81 25. 20:00etatik aurrera.

• Etxebizitza erosi nahi dugu Ara-maio edo Aretxabaleta inguruan. Tel.: 629 92 24 48 82.

3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokagai ikasleentzat, Arrasaten. Tel.: 943 79 39 02

• Etxebizitza alokagai Torreveijan. Bi logela, jangela eta hondartzatik 100 metrora. Tel.: 943 77 03 85.

• Hiru gelako etxea alokagai San Andresen. Tel.: 607 84 86 73.

• Etxebizitza alokagai ikasleentzat, Arrasate Pasealekuan, 11. 2. ezke-rra. Etxe berria. Tel.: 943 78 01 45.

• Peñiscolan apartamentua aloka-gai ekainean, uztailean, abuztuko lehenengo hamabostaldian eta irai-lean. 100 m², igerilekua. Tel.: 943 79 48 82.

• Oropesa del Marren etxea aloka-tzen da udan. Tel.: 964 31 08 55.

• Donostian (Antiguon) etxea alo-katzen da, abuztuan eta irailean. Hon-dartzatik 200 metrora. Tel.: 943 79 82 05)21:00etatik aurrera).

4. Errentan hartzeko

• 4 ikasle etxebizitza bila, eskola politetnikotik gertu. Tel.: 616 04 30 72. Jon. 606 36 07 45. Oier.

• Etxebizitza behar da errentan har-tzeko Aramaio edo Aretxabaleta inguruan. Tel.: 629 92 24 48 82.

5. Etxeak osatzeko

• Logela bat alokagai, Ferixalekuan. Tel.: 943 79 87 59. Teresa.

• Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko San Andresen. Tel.: 943

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineakoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pres-sek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

79 32 28. Mikel.

• Bi gela alokagai Erguin kalean. Tel.: 639 58 93 66.

• Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko Arrasaten (Lehenbaile-hen) Tel.: 616 82 17 23. Garbiñe.

• Logela bat alokagai, San Andre-seko etxebizitza batean. Tel.: 667 48 30 94.

• Jendea behar da pisua betetzeko Arrasaten. Tel.: 619 77 50 19.

• Jendea behar da etxebizitza bete-zeko Arrasaten. Tel.: 619 77 50 19.

GARAJEAK

9. Errentan emateko

• Erdialdean dagoen garaje itxia alokagai. Tel.: 943 79 01 84. Eurne.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Usaetxen garaje itxia salgai. Tel.: 943 77 12 77.

14. Errentan emateko

• Martxan dagoen denda alokagai Aretxabaletan. Tel.: 626 37 93 26.

LANA

17. Eskaintza

• Enpresa edo tailer batean lan egin-go nuke. Tel.: 943 79 37 68. Idoia.

• Arrasaten gazte arduraduna eskain-tzen da tabernan edo antzeko non-baiten lan egiteko goizez edo gauez. Tel.: 943 77 14 32.

• Neska prest Arrasaten arratsal-dez umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• 10 urteko esperientzia duen ema-kumea prest orduka etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo bestelako lanak egiteko. Kotxearekin eta eus-kalduna. Informarekin. Tel.: 677 71 93 31.

• Mutila edozein lan egiteko prest. Tel.: 600 600 531.

• Mutila edozein lan egiteko prest. Tel.: 616 66 48 51

• Neska lan egiteko prest. Tel.: 646 61 13 83.

18. Eskaerak

• Etxeko lanak egin eta umeak zain-tzeko neska edo emakumea behar da. Tel.: 943 79 96 52.

• Etxeko lanak egiteko emakume bat behar da, aitari konpainia egi-teko. Tel.: 943 79 60 28.

• Eskoriatzako ile apaindegi bat zure bila dabil. Estilista izateko frogak egingo ditugu. Bidali kurrikulumak maiatzaren 12a baino lehen. In-txauxeta 6, Behea. 20.520, Esko-riatza.

• 4 urteko neskatila bat zaintzeko pertsona arduratsu bat behar dut. Tel.: 943 79 82 18, 20:00etatik aurrera.

• Marketing edo komertzial boka-zioa duen ikaslea behar da. Bidali kurrikulumak 147 posta kutxatila-ra.

• Mutila behar da harategian lan egiteko. Tel.: 943 79 14 86.

• Taberna baterako sukaldaria edo sukaldari laguntzailea behar da. Tel.: 617 60 84 45.

• Emakumea edo neska behar da bi ume zaintzeko. Tel.: 943 79 73 04.

• Emakumea behar da orduka etxe-ko lanak egiteko. Tel.: 943 79 19 64.

• Emakumea behar da irailetik aurre-ra bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 696 40 40 67 (utzi izena eta telefono zenbakia).

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut, maila guztiak. Tel.: 943 77 08 69.

• DBHko eskola partikularrak ema-ten dira. Tel.: 943 79 40 57. Ane.

• Matematikako eskolak ematen dira. Esperientziadun irakaslea. Tel.: 616 55 03 18.

21. Eskaerak

• Bi neska ingelesezko eskola partikularrak jaso nahiko lukete. Tel.: 943 79 09 71, Nerea eta 943 79 09 86 Naiara.

• 1. batxilergoko ikasle batek eko-nomia eskolak jasoko lituzke. Tel.: 943 79 98 07.

• DBHko 4. mailako eskolak ema-teko pertsona bat behar da. 943 79 57 31 (18:00etatik aurrera).

MOTORRA

23. Saldu

- Playstation erabili gabea. Prezioa: 15.000. Tel.: 943 79 52 27.
- Peugeot 806, 7 plaza. 2.0 gasolina. Tel.: 607 15 30 70.
- Suzuki SK.50 ziklomotorea salgai. Oso egoera onean. 100.000 pta. Tel.: 616 15 63 73.
- Renault 11 salgai. SS-AB (75.000 pta) Tel.: 943 71 54 59.
- Gas Gas Trialeko motorra salgai. 250 cc. 92koa. Tel.: 943 79 78 36. Unai.
- Peugeot 309 salgai. Lau ate, SS-AF matrikula. 170.000 pta. Tel.: 670 42 07 07.

DENETARIK

26. Saldu

- Karro denda Inesca (Viena modelo) salgai. Ia berria. Tel.: 943 76 43 80.
- Antzinako pianoa salgai. Tel.: 943 79 47 17. Gaez.

• Cocker amerikarrak salgai. hogei ta hamar txapeldun. Tel.: 666 54 77 15, 943 79 68 53, eguerdian.

• 99ko Wip It piragua salgai. Remo, bainu estalkia eta 4 globo. Tel.: 943 79 78 36. Unai

• 9-12 urte bitarteko haurrentzako bizikleta salgai, prezio onean. Tel.: 943 79 71 86 (Jone, 19:00-22:00).

• Mugitu ezin diren pertsonak eramateko garabi txikia salgai. Osagai guztiak ditu eta prezio onean salduko genuke. Tel.: 943 79 60 25.

• Boxer eta artzain-txakurren txakurkumeak pedigriarekin salgai. Tel.: 696 05 73 46.

27. Erosi

• Diskoak eta LPak erosiko nituzke. Tel.: 943 79 76 90.

• Bigarren eskuko ordenadore portatila erosi nahi dut. Tel.: 943 79 77 85.

• Arrue markako panpinentzako kotoxe garaia erosiko nuke. Tel.: 943 79 37 68.

• Billar bat erosiko nuke. Ez dadila oso garestia izan. Tel.: 943 77 17 58. Josu.

31. Galdu

• Zorro beltz batean bilduta zeuden giltza batzuk galdu nituen, Zigarrola aldean pasa den astean. Aurkitu badituzu, deitu 943 79 07 80 telefonora.

• Inauteri domekan urrezko pultsera bat aurkitu nuen Artxabaletan. Tel.: 945 44 52 00, 20:00etatik aurrera. Laneko Tel.: 943 71 92 00.

• Martxoaren 10ean koltxoidendako algodoizko 2 funda galdu nituen Tximeleta gozokidenda parean. Tel.: 943 79 80 25. Arantza.

• Herriko parrokiaren arkupean Nokia markako esku telefonoa aurkitu nuen. Berreskuratzeko deitu 943 77 01 42 telefonora.

33. Bestelakoak

• Botatzeko dituzun egurrezko ateak jasotzen ditugu. Tel.: 943 79 97 84.

• Zure sukaldeko mahaia, aulkia, armairuak edo gas sukaldea erretiratu behar badituzu, neuk hartuko nizuke. Dei egidazu 616 12 57 26 telefonora.

• Martxan dagoen garbitasun enpre-

sa saltzen dut, furgoneta, makina-ria eta guzti, oso modu onean, negozioaz arduratu ezin naizelako. Hileko irabazia 450.000 - 500.000 pta. Interesatuok deitu 629 40 47 82 telefonora.

• Ziklomotor zahar baten fitxa teknikoa behar dut. Tel.: 943 77 08 02. Joxean.

32. Aurkitu


• Udalara bidean giltza batzuk agertu dira. Jabeak Larrinetxe tabernan jaso ditzake. Tel.: 943 79 22 15.

• San Andresen giltza mordoxka duen kremailearadun kartera gorria aurkitu dut. Udaltzaingoan dituzu. Tel.: 943 79 14 39.

HARREMANAK

35. Kontaktuak


• Xabi naiz eta 36 urtetik beherako mutilekin harremanak izan nahi nituzke. Asmo bera baduzu, idatzi posta kutxa honetara: 91 zbk. 20560 Oñati Gipuzkoa. Nire aldetik erabateko zuhertasuna.



weru
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



**PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moketak,
zoru arinak,
kortxoa,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...**



Maalan baze-
goen lehen
futbol zelai
bat; 1923.
urteko San
Juanetan inauguratu zen eta
1945ean itxi, Iturripe egin eta
inauguratu zenean. Maalako
futbol zelai horretan dago ate-
rata aste honetako argazki zaha-
rra, 1925. urtean.

Villa Amparo izeneko jau-
regiaren eta Elma lantegiaren
lur sailetan egon zen kokatua.
Club Deportivok lur horiek

errentan hartu zituen futbol
zelai moduan erabiltzeko eta
majo aprobetxatu zuten herri-
ko neska-mutikoeak.

Horren irudi argazkian
agertzen diren mutikoeak. 13 urte
zituzten argazkia atera zenean.
Honakoak dira, ezkerretik esku-
mara: Pablo Ibarra "Kaxo",
Juan Elorza, Luis Arrieta "Pis-
ton", Julio Beltran, Eustakio
Arregi "Arrue", Vicente Uri-
betxeberria, Pedro Murgoitio
eta Francisco Amozarrain.
Makurtuta daudenak, berriz,

Leandro Ibañez de Opakua
"Txomin Txiki", Vitorio Cas-
telo eta Jesus Balanzategi dira.

Atzealdean ikusten den
eraikina, berriz, Elmaren erai-
kin nagusia zen. 1930. urte
inguruan erre egin zen, eta
ondoren, oraingoa eraiki zuten.

Bestalde, Villa Amparo jau-
regia zegoen tokian (orain
Mapfreko etxebizitza dagoen
lekuan), aurretik Mondragoe-
ko zezen-plaza zegoen, baina
hemengo eguraldi eskasak ez
zuen zezen-plaza larregi era-

biltzen uzten eta Dagoberto
Resustak eta Vicenta Heviak
erosi zuten, Villa Amparo erai-
kitzeko. Herriaren kanpoaldea
zen orduan Maala inguru hura;
are gehiago, Resustarrak hara
bizitzera joan zirenean, mon-
dragoetarrek zera esaten ei-
zuten: "hi, Dagoberto Berga-
rara joiek bizitzen!!!".

*Berriemaileak: Pedro
Zumelaga eta
Jose Mari Uranga.*




**Eguzkiari
aurre egiten
diogu inork,
baino hobeto**

Kataide Industrialdea, 14
Musakola • ARRASATE
Tel.: 943 79 23 83
Faxa: 943 77 04 45



**Gizonak
Emakumeak**

Jantziak

Erdiko kale, 32 • ARRASATE • Tel.: 943 79 16 12



OMU
ZERAMIKAK

Zeramika,
arte
unibertsala

Orain erakustoki berria, Ignacio Zuloagan



Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka, 6 • Tel./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE
Erakusketa: Ignacio Zuloaga, 4 • Tel.: 943 79 07 20 • ARRASATE



ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAK

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



RK UZ
ALTZARIAK

Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



RK UZ
ELEKTRAGAILUAK

Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert

RK UZ
SUHAILDE INTEGRALA

Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR

50 urte

gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik